


Z_{LH6}

2016-2017



Zuzenketarako koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:

Ikastaldea/Ikaskela:

Herria:

Data:

Zientzia

Gaitasuna

Lehen Hezkuntzako 6.a

Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Esate baterako:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria.
- B. Gardena.
- C. Urdina.
- D. Berdea.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria.
- B. Gardena.
- C. Urdina.
- D. Berdea.

Beste galdera batzuetan esan beharko duzu zerbait egia (E) ala gezurra (G) den, edo puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Esan ugaztunen 2 ezaugarri:

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

JANARIA

ESKOLAKO MENUA

gaurko bazkaria

- Lekak
- Aratxe xerra patata frijituekin
- Laranja



Koldo berandu iritsi da jantokira gelan istripu txiki bat izan duelako. Artaziekin mozten ari zela, zauri txiki bat egin du hatz batean. Maitek, bere irakasleak, botikinaren gelara lagundu dio, eta han zauria desinfektatu eta tiritu bat jarri diote.

1. Osasuna garrantzitsua da, eta modu osasungarrian jatea ere bai. Zergatik da osasungarria aratxe xerra jatea?
 - A. **Proteinak ematen dituelako.**
 - B. Energia ematen duelako.
 - C. Gantzak ematen dituelako.
 - D. Lipidoak ematen dituelako.

2. Artaziekin ebaki bat egiten dugunean, mota berezi bateko zelulak lanean hasten dira infekziorik izan ez dezagun. Zein dira zelula horiek?
 - A. Globulu gorriak.
 - B. **Globulu zuriak.**
 - C. Hematieak.
 - D. Plaketak.

3. Zauri bat egitean, odola koagulatzen duen prozesuan parte hartzen eta zauria sendatzen laguntzen duten zelula mota batzuk hasten dira lanean. Zein dira zelula horiek?

- A. Globulu gorriak.
- B. Globulu zuriak.
- C. Hematieak.
- D. **Plaketak.**

4. Haurdunaldian, nutrizio-behar bereziak izaten dira fetua ongi garatzeko. Ernalketa gertatzen denetik haurra jaio arte, aldaketa eta fase asko gertatzen dira. Argazki hauetan, identifika ezazu enbrioia garapenerako fase desberdinak. Taula bete ezazu, garapeneraren ordena zuzena adieraziz (1., 2., 3., 4. idatzi dagokion tokian) eta fase bakoitzaren izena dagokion tokian idatziz:

	Fetua	Zigotoa	Enbrioia	Haurra
Argazkia				
Ordena (1., 2., 3., 4.)	4.	2.	1.	3.
Fasearen izena	Haurra	Enbrioia	Zigotoa	Fetua

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun. Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Eskatutako bi lerroetatik bat bakarrik bete badute ongi.
2	Eskatutako bi lerroak ongi bete badituzte: - Lau faseak zuzen ordenatuz. - Lau faseen izena zuzen adieraziz.

5. Zer motatako begetala da tomatea?

- A. Sustraia.
- B. Tuberkulua.
- C. Lekalea.
- D. **Fruta.**



6. Letxuga entsalada prestatzeko olio eta ospina erabiltzen ditugu. Arrazoiturik azal ezazu bi produktu horien konbinazioa zein motatako nahasketa den, homogenea ala heterogeneoa.

Nahasketa da:

Eta horren zergatia da:

.....



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun. Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Bi erantzunetako bat da zuzena.
2	Bi erantzunak zuzenak dira: <i>Nahasketa da: heterogeneoa. Eta horren zergatia da: elementuak bereizi daitezkeela.</i>

7. Osasun etxean, kartel batzuetan irakurri dugu gehiegizko pisua ohiko arazoa dela, eta herritarren %65ek sufritzen dutela. Gehiegizko pisuaren kausak elikadura desegokiarekin lotuak izan daitezke, adibidez, "zabor janaria" deiturikoarekin (azukredun edariak, gantz gehiegi duten jakiak...). Izan ere, egunero pizza, hanburgesak, oilasko frijitua eta patata frijituak jatea lotua dago gorputz-masaren indize handiagoa izatearekin. Esan ezazu zer dieta mota izan behar duzun aipatutako gehiegizko pisuarekin lotutako arazo hauek ez sufritzeko.

- A. Karbohidratoetan eta gantzetan dieta aberatsa.
- B. Gantzetan eta zuntzean dieta aberatsa.
- C. **Zuntzean eta karbohidratoetan dieta aberatsa.**
- D. Gantzetan eta proteinetan dieta aberatsa.



8. Begiratu hurrengo taulari. Hainbat jakiren eduki kalorikoa erakusten du:

Balio energetikoa (Kcal 100 gramoko)					
Barazkiak		Haragiak eta arrainak		Frutak	
Lekak	39	Atuna	225	Arana	44
Zainzuriak	26	Txerri solomoa	208	Sagarra	52
Letxuga	28	Oilaskoa	85	Banana	90
Kardua	21	Aratxe xerra	181	Laranja	42
Zerba	33	Mihi-arraina	74	Meloia	32

Taulako produktuak erabiliz, bazkaria prestatu behar dugu. Soilik hiru jaki aukeratu behar ditugu, kopuru hauekin:

200 gramo barazki

150 gramo haragi edo arrain

150 gramo fruta

Erabaki ezazu zein izanen diren hiru jaki horiek, jakinik ahalik eta kaloria kopuru txikiena hartu nahi dugula, betiere ongi elikatuz. Laguntza moduan, taula hau erabili:

Taldea	Aukeratutako jakia	Kopurua	Ematen dituen kilokaloriak
Barazkia	Kardua	200 g	42 Kcal
Haragia edo arraina	Mihi-arraina	150 g	111 Kcal
Fruta	Meloia	150 g	48 Kcal

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun. Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Hiru erantzunetako bat edo bi dira zuzenak.
2	Hiru erantzunak zuzenak dira: (neurri unitateak -Kcal- adierazten ez badituzte ere) - Kardua 42 Kcal - Mihi-arraina 111 Kcal - Meloia 48 Kcal

TXANGOIA CABÁRCENO-KO PARKERA

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek txango bat egin behar dute. Cabárceno-ko parkera joan behar dira, ekosistema artifizial horretan bizi den munduko faunaren dibertsitatea ikustera.



9. Cabárceno-ko planoan ikus dezakegun bezala, animaliak ez daude beren berezko giroan edo habitatean. Adibidez, lehoia, jirafa eta elefantea eremu desberdinetan daudela ikus dezakegu. Beren habitatean baleude, egoera naturalean, non biziko lirateke animalia horiek?

- A. Siberiako tundran.
- B. Asiako oihanean.
- C. Afrikako sabanan.
- D. Amerikako belardietan.

10. Parkean, bost kontinenteetako animaliak daude eta bakoitzak ezaugarri nagusi batzuk ditu. Animalia horien artean martsupialak daude.

Esan itzazu martsupialen bi ezaugarri:

.....

.....

Esan ezazu ezagutzen duzun martsupial baten izena:

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerrak edo osatu gabeak. Soilik ezaugarri bat edo soilik animalia izena eman du.
1	Hiru erantzunetako bi dira zuzenak, hau da: - Ezaugarri zuzen bat eta animalia izen zuzena eman ditu. - Bi ezaugarri zuzen eman ditu.
2	- Bi ezaugarri zuzen eta izen zuzena eman ditu. Ezaugarriak: <i>Animalia ugaztuna, garapen txikia du amaren umetokian, hazkuntzaren zati handi bat amaren ugatzei helduta egiten du poltsa edo martsupioaren barnean, emeak sabelaldean duen poltsa martsupialean eramaten ditu kume jaioberriak, etab.</i> Animalien izenak: <i>kangurua, Tasmaniako deabrua, zarigueia, koala, etab.</i>

11. Cabárceno-ko parkea tren txiki batean bisitatu daitekeela esan digute. Trenak, beren bilakaeran, oso kutsagarriak ziren lurrun-makinetatik gaur egungo tren elektrikoetara pasatu dira. Gaur egungo tren elektrikoek:

- A. Gas toxikoak isurtzen dituzte atmosferara.
- B. Ura (H₂O) isurtzen dute atmosferara.
- C. Karbono dioxidoa (CO₂) isurtzen dute atmosferara.
- D. **Ez dute gas toxikorik isurtzen atmosferara.**

12. Askotan, animalia bat ikustean izaten dugun lehenbiziko inpresioa ez da zuzena; bere formak pentsarazten digu benetan berea ez den animalia-talde batekoa dela. Batzuetan animalia izen hezurdurak nahasten gaitu. Esan ezazu, zer motatako animalia den argazkiko arrabioa.

- A. Arraina.
- B. Narrastia.
- C. **Anfibioa.**
- D. Ofidioa.



13. Begiraiozu planoari eta **X MARKA GORRIA** dagoen tokian koka zaitetz. Esan ezazu adierazitako puntu kardinal bakoitzean aurki dezakezun animalia mota bat.

Ekialdea (E)

Mendebaldea (O)

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun. Erantzun guztiak okerrak dira. Soilik erantzun bat da zuzena.
1	Bi erantzunak zuzenak dira. Adibidez: Ekialde (E): elefantea, lehoia, kangurua... Mendebalde (M): gorila, llama, tigrea, behia...

14. Berriz ere begiratu planoari, non bazkaldu dezakegun ikusteko: identifikatu eta marraz ezazu toki hori adierazten duen sinboloa.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun edo marrazkiari ez zaio argi antzematen.
1	Bi marrazkietako bat egin du: - Kafe kikara. - Sardexka eta labana (biak).

15. Parkeko arauetako bat da bazkaldu ondoren ingurua garbi utzi behar dela. Zein zakarrontzitarra botako zenuke janari hondar hauetako bakoitza? Zenbakia idatzi dagokion zakarrontziaren azpian.

Plastikozko ur botila	1
Aluminiozko papera	2
Fruta hondarrak	3
Erabilitako paperezko ahozapia	4



.....

1

2, 3, 4

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun. Erantzun zuzen bat edo bat ere ez .
1	Bi edo hiru erantzun zuzen.
2	Lau erantzunak zuzenak dira: - Zakarrontzi horia: plastikozko ur botila. - Zakarrontzi berdea: aluminiozko papera, fruta hondarrak eta erabilitako paperezko ahozapia

16. Parkean mota askotako animaliak daude. Adierazi X baten bidez ornogabeak diren hiru animaliak:

Barraskiloa.

Sugea.

Karramarroa.

Arranoa.

Intsektua.

Arraina.

Ostruka.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun. Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<u>Hiru</u> onurak eman ditu.

2016KO RIOKO OLINPIADAK

2016ko udan Olinpiadak izan dira eta lehenbiziko aldiz Hego Amerikan egin dira.



Egoitza olinpikoa Brasilgo hiri bat izan da: Rio de Janeiro.



Baldintza klimatologikoez eragin handia izan dute jokatu diren proben emaitzetan, eremu subtropikalean dagoenez hezetasun maila oso handia delako.

17. Brasilen Iguazuko ur-jauzi paregabeak daude, Argentinarekin mugan. Ur-jauzi horiek diru iturri garrantzitsua dira bi herrialdeentzat, turista pila batek bisitatzeko dituztelako. Orain, zentral bat eraiki nahi dute, ur-jauzian erortzen den urak sortzen duen energia aprobetxatzeko, energia asko baita hori. Zer motatako zentrala eraikiko dute energia ekoizteko?

- A. Zentral termikoa.
- B. Zentral nuklearra.
- C. Zentral hidroelektrikoa.
- D. Eguzki zentrala.



18. Estropadalari espainiarrak dominarik gabe itzuli dira aurtan. Rioko badian egin diren estropadetan zailtasunak izan dira, eta batzuk bertan behera gelditu dira belaontziek ezin zutelako aurrera egin. Marrazkian belaontzi bat agertzen da, nabigatzen: zein da belaontzia mugiarazten duen indarra?

- A. Grabitatea.
- B. Haizea.
- C. Marruskadura.
- D. Magnetismoa.



22. Dominak urre trinkozkoak izan ziren azken aldia 1912ko udako olinpiadetan izan zen, Stockholm-en (Suedia). Harrezkero, olinpiadetan banatzen dituzten dominakURREAREN eta beste metal batzuen arteko aleazio batez egiten dituzte. Zer da aleazio bat?

- A. Bi metalen arteko nahastea da, metal horiek urtuz eta solidotuz lortua.
- B. Bi likidoren arteko nahastea da, lurrunketaz lortua.
- C. Elementu solido baten eta gas baten arteko nahastea da, irakiteari esker lortua.
- D. Metal baten eta metala ez den osagai baten arteko nahastea da, urtuz lortutakoa.



23. Euli-pisuko judo txapeldun olinpikoa (Nicolás), bi aldiz igo da kulunka batean, lehenengo, gimnasia artistikoko txapeldunarekin (Catalina) eta, gero, mailu-jaurtiketako txapeldunarekin (Luis). Nicolásek eta Catalinak berdin pisatzen dute, baina Luisek Nicolásen bikoitza pisatzen du.

Irudi hauetako zeinek erakusten du Catalina eta Luis zer tokitan kokatu beharko liratekeen Nicolás orekan gelditu dadin, lehenengo Catalinarekin eta gero Luisekin?

- A. A irudiak.
- B. B irudiak.
- C. C irudiak.
- D. D irudiak.







Nicolás



Catalina



Luis



24. Kirolari olinpikoek, entrenatzeaz eta lehiatzeaz gain, badute ongi pasatzeko denbora ere. Batzuek esperimentu bat egitea erabaki dute, gure dietako oinarrizko jaki batekin. Patata egosi bat ur hotzez beteriko katilu batean sartu dute. Zer gertatuko zaie uraren temperaturari eta patataren temperaturari?

- A. Uraren eta patataren temperatura ez da aldatuko.
- B. Ura berotuko da eta patata hoztuko da.
- C. Uraren temperatura ez da aldatuko eta patata hoztuko da.
- D. Bai ura bai patata berotuko dira.

25. Zer gertatuko da urez beteriko edalontzi batean izotz-koskor bat sartzen badugu?

- A. Izotz-koskorra edalontziaren hondoraino urperatuko da.
- B. Izotz-koskorra ur gainean geldituko da.
- C. Izotz-koskorra urpean geldituko da baina hondotik hurbilago geldituko da ur-azaletik baino.
- D. Izotz-koskorra urpean geldituko da baina ur-azaletik hurbilago geldituko da hondotik baino.

26. Poliki isurtzen diren likidoei likido likatsu (edo biskoso) deitzen zaie. Jarabea, adibidez, likido likatsua da. Likido horiek ontzien paretetan itsatsita gelditu ohi dira. Likido hauetako zein da likatsuena giro-tenperaturan?

- A. Eztia.
- B. Ura.
- C. Olio.
- D. Esnea.

27. Jakinik urrezko domina batek 800 gramo pisatzen duela eta Michael Phelps igerilariak urrezko 5 domina irabazi dituela. Pisu bakarra erabiliz, pisu hauetako zein da 5 dominek guztira pisatzen dutenaren baliokidea?

- A. 2 kg-ko pisua.
- B. 3 kg-ko pisua.
- C. 4 kg-ko pisua.
- D. 5 kg-ko pisua.



KANPINERA OPORRETAN

Aurten Pirinioetara joan gara oporretan, kanpin-dendan. Ez dugu kanadiar erako denda bat eraman, baizik eta handiago bat, aurrean estalpe bat eta etxetresna txikiak erabiltzeko toki nahikoa duena.




28. Lehenengo gauean esperimentutxo bat egin genuen amarekin. Bonbilla txiki bat nola piztu azaldu zigun. Pila, bonbilla eta kablea irudian agertzen den moduan lotzen baditugu, modu arrazoituan azaldu nola lortu dezakegun bonbilla piztea.

.....

.....

.....

.....



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Ez du erantzun. Ez du azalpen zuzenik eman.
1	Azalpen zuzen bat eman du: bonbilla piztuko da bi kableak lotzen badira, bonbilla piztuko da zirkuitua ixten bada...

29. Bonbillek ez dute berezko argirik. Aldiz, bikote hauetako zein dira berez argia ematen dutenak?

- A. Kandela baten sua eta ilargia.
- B. Ilargia eta ispilua.
- C. Eguzkia eta kandela baten sua.
- D. Ispilua eta Eguzkia.

izan gogoan: makina batzuk sinpleak dira, ia beti palankan edo gurpilean oinarrizten direlarik; beste batzuk konposatuak dira, hainbat makina sinplez osatuak edo motordunak.

30. Kanpineko bezeroek hainbat motatako makinak aloka ditzakete. Lau makina hauetatik, zein da makina sinplea?

- A. Bizikleta.
- B. Eskorga (karretilla).
- C. Garbigailua.
- D. **Kurrikak (tenazak).**



31. Lau makina hauetatik, zein da makina konposatua?

- A. Artaziak.
- B. Pintzak.
- C. **Irabiagailua.**
- D. Mailua.



32. Esan ezazu makinei buruzko esaldi hauetako zein den zuzena:

- A. Gurpila makina konposatua da.
- B. Makina sinpleek elektrizitatea kontsumitzen dute.
- C. **Intxaur-hauskailua bezalako tresnak makina sinpleak dira.**
- D. Makina konposatuek lanak egitea zailtzen dute, esfortzu handia egitea eskatzen dutelako.

33. Zerrenda hauetako batean, objektu guztiak makina sinpleak dira. Zeinetan?


- A. Edalontzia, irabiagailua, platera, koilara.
- B. Garbigailua, ispilua, ateko heldulekua, liburua.
- C. Gurpila, botila, mahaia, ontzi-garbigailua.
- D. **Giltza ingelesa, artaziak, bihurkina, lata-irekitzekoa.**

34. Bizikleta makina konposatua da, eta osatzen duten elementu mekanikoak lotuta dauden moduagatik, mugimendua elementu batetik bestera transmititzen da. Esan ezazu elementu hauetako zein EZ den transmisio elementua.

- A. Errodamenduak.
- B. Engranajeak.
- C. Biradera (edo manibela).
- D. Transmisio-katea.

35. "Eman lezadazu euste-puntu bat eta mundua mugituko dut". Arkimedesek, esaldi horrekin, esan nahi zuen barra baten beso luze batean indar txiki bat eginez, barra horren beso motzean kokatutako karga edo pisu handi bat altza daitekeela. Nola deitzen da irudian agertzen den makina?

- A. Plano makurtua.
- B. Polea.
- C. Palanka.
- D. Zirria.



36. Tresna meteorologiko bat fabrikatu behar dugu, opor egunetan zenbat euri jasotzen dugun ikusteko (ea asko ez den!). Zein da toki batean eroritako euri-uraren kantitatea neurtzen duen tresna?

- A. Haize-orratza.
- B. Plubiometroa.
- C. Termometroa.
- D. Anemometroa.

37. Kanpinean ez dute etxean asko erabiltzen dugun aparatu bat, energia elektrikoa bero-energia bihurtzeko gaitasuna duena. Zer aparatu da?

- A. Telefonoa.
- B. Lisaburdina.
- C. Lanpara.
- D. Xurgagailua.



38. Nire gurasoek oporretan ere ongi informatuta egon nahi dute munduan gertatzen den guztiaz. Horregatik, ordenagailua eraman dugu kanpineko eremu batzuetan Wifi uhinen bidez konektatzeko aukera izanen dugulako. Zer motatako uhinak behar dira Wifi bidez konekta gaitzen?

- A. Uhin hertziarrak.
- B. Uhin elektromagnetikoak.
- C. Uhin sismikoak.
- D. Uhin mekanikoak.

